

**2024/2025eko IRAKASLEEN LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

KIDEGOAK: BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEAK, DESAGERTZEAR DAUDEN LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK, MAISU-MAISTRAK ETA LANBIDE HEZIKETAKO SEKTORE BEREZIETAKO IRAKASLE ESPEZIALIZTEN KIDEGOA

2024ko azaroaren 4an argitara eman dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko Aginduak, aipatutako kidegoetako funtzionario irakasleen arteko lekualdatze-lehiaketa deialdia egiten dituen.

OHAR OSO GARRANTZITSUA: 2024/11/04ko EHAAn argitaratutako deialdiaren I., IV. eta V. eranskinak akatsak dituzte. Eranskin zuzenak argitaratu dira Hezkuntza Sailaren webgunean. <https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-lekualdatze-lehiaketak-maisuak-maistrak/web01-a3hhlair/eu/>

1º.- Parte hartzeko eskaera:

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzea formalizatzeko era bakarra hau izango da: Hezigunean-n eskura dagoen eskaera elektronikoa betetzea. Eskaera horretara sartzeko internet <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / ONARTZEKO ESKABIDEA

Pasahitza izan edo gogoratu ezean, "Pasahitza ahaztu duzu" sakatu ezazu aipatutako helbidean, pasahitza berreskuratzeko.

2024ko azaroaren 5etik 26ra bitartekoa, biak barne, izango da eskaerak bete eta merituen eta baldintzak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea.

Praktiketako funtzionarioek EZ dute merezimenduak egiaztatzeko inolako dokumentaziorik aurkeztu behar. Bakarrik aurkeztu beharko dute, lanpostu hirueledunak eskatuz gero, dagokion tituluaren edo ziurtagiriaren egiaztagiria, baldin eta langileen erregistroan jasota ez badago.

2º.- Aplikazio informatikoaren gida:

Prozesu horretan parte-hartzea errazteko asmoz, parte hartzeko eskaeraren on-line grabazioari buruzko gida bat eta merezimenduei buruzko beste gida bat emango da Internet-eko helbide hauetan argitara: <https://hezigunea.euskadi.eus-->eremu-pertsonala->izapideak-langileen-sailarekin->lekualdatze-lehiaketa-eta-https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak> ("Lekualdatze lehiaketa" atalean); halaber, prozesua behar bezala garatzeko behar den informazio guztia emango da ere argitara.

3º.- Merezimenduen baremoa:

3.1.- Zein merezimendu baloratzen dira?: Deialdiaren I. eranskinen adierazten direnak.



***GARRANTZITSUA:** deialdiaren I. eranskina zehatz-mehatz IRAKURRI behar da. Eranskin honetan baloratzen diren merezimenduak eta justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioak agertzen dira, baita Administrazioak berak ofizioz zenbatzen dituen merezimenduak ere (hots, lehiatzaileak ez du, horiek egiaztatzeko, dokumentaziorik aurkeztu behar). Gerta liteke atal bereko merezimenduak baloratzeko, kasu batzuetan ofizioz egitea, eta beste kasu batzuetan, ordea, parte-hartzaileak merezimendu horren egiaztagiria aurkeztea beharrezkoa izatea.

3.2.- Zein merezimendu baloratzen ditu, ofizioz, Administrazioak?, hots, lehiatzaileak ez du egiaztagiririk aurkeztu beharrik:

a.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak (1.1.1, 1.1.2, 1.1.3, 1.2.1, 1.2.2 eta 1.2.3 atalak).

OHARRA: karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuez gain, bitarteko funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira (1.2.1, 1.2.2. eta 1.2.3 ataleen kasuan)

b.- Euskal Autonomia Erkidegoko Katedradunen Kidegoetakoak izatea (2. atala).

c.- Ondorengo tituluak (3. Atala), baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan agertzen badira:

- Doktore tituluak.
- Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den Masterraren unibertsitate-titulu ofizialak.
- Graduaren unibertsitate-titulu ofizialak.
- Diplomaturak, Ingeniaritza teknikoak, Arkitektura teknikoak.
- Lizentziaturak, Ingeniaritzak edo Arkitekturak
- Lanbide Heziketako Goi-mailako teknikariaren, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak
- Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko

d.- EAEko eta beste erkidego batzuetako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tituluak, azken kasu horretan Langileen Erregistroan badaude. (Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko hizkuntza-ziurtagiriak atal berri batean (5.5) zenbatuko dira lekualdatze-lehiaketa guztietan, autonomia-erkidegoetakoak nahiz estatukoak izan (ikus g.- atala beheherago).

e.- Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia erkidego batzuetako ikastetxe publikoetan, Pertsonalaren Erregistroan jasota agertzen badira, bete diren ondorengo zuzendaritza-karguak:

Zuzendaria, idazkaria, ikasketa-burua eta haren albokoak, zuzendariordea, idazkariordea, Lanbide Heziketako idazkariordea, gaueko ikasketa-burua eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako administratzailea. (4.1 eta 4.2 atalak)

OHARRA: Karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuez gain, bitarteko funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira.

f.- Langileen Erregistroan dauden Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko hizkuntza-ziurtagiriak ofizioz zenbatuko dira 5.5 atal berrian. ACLES-ek aitortutako ziurtagiriak izan behar dira (Asociación de Centros de Lenguas de Educación Superior); ikusi ziurtagirien taula esteka honetan: <https://www.acles.es/index.php/acreditaciones/216-tablas-de-certificados-reconocidos-por-acles>.

g.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jarduerak, bai eta aipatutako Hezkuntza Sailak homologatu edo onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatutakoak ere; hau da, Garatu ikastaroak eta EAEko Hezkuntza Sailak aitortu edo homologatutako ikastaroak (5.1 eta 5.2 atalak).

h.- Espezialitate berria lortu izana EAEan (5.3 atala)

i.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emandako kompetentzia digitalaren egiaztapena (5.4 atala).

j.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako ikerketa- edo berriztapen-proiektuetan parte hartzea (6.2 atala).

k.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza administrazioko lanpostuetan aritutako zerbitzuak, lanpostu-mailako osagarria parte hartzen dueneko kidegoak daukanaren berdina edo altuagoa denean. (6.4 atala).

l.- Irakaskuntza-kidegoetara sartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako aukeratze-prozeduretarako epaimahaietan kide gisa parte hartzea (6.5 atala).

m.- 2023/2024 ikasturtetik aurrera oposizioa eta lehiaketa gainditzeagatik hautatutako pertsonen praktiketako tutoretzak, EAEn egindako hautaketa-prozesuen kasurako (6.6.2 atala)

n.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren hizkuntz eskakizunak (6.7 atala).

3.3.- Lehiatzaileak erakutsi behar dituen merezimenduak:

Merezimenduen baremoaren I. eranskinean ofizioz zenbatu beharreko merezimendu gisa agertzen ez direnak. Batez ere, beste irakaskuntza-funtzio batzuk (4.3 atala) eta aipatutako I. eranskineko 6.1, 6.3 eta 6.6.1 atalak aipatzen ditu.

OHARRA: Karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuez gain, bitarteko funtzionario edo praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira.

Langileen Erregistroan dagoen informazioa kontsultatzeko, honako helbide honetara jo beharko da: <https://hezigunea.euskadi.eus> (sartu erabiltzailea eta pasahitza) – Eremu pertsonala – Nire datu laboralak. Eta ondoren, honako apartatu hauek kontsultatu ahalko dira:

- Zerbitzu orria.
- Tituluak, espezialitateak eta ziurtagiriak.
- Zuzendaritza-karguak.
- Prestakuntza-jardueren kasuan, Eremu Pertsonala – Nire prestakuntza sartu beharko da.

Zuzendaritza-karguei dagokienez, hurrengoak ikusi ahal izango dira:

- Zuzendaria, zuzendari albokoa, zuzendariordea.
- Idazkaria, idazkari albokoa, idazkariordea.
- Ikasketa-burua, ikasketa-buru albokoa, gaueko ikasketa-burua.
- Lanbide Heziketako ikastetxeetako Administratzailea

GARRANTZITSUA: Zure historiala osorik ez balego, merezimenduak aurkezteko epean aurkeztu beharko duzu aipatutako historialean agertzen ez diren merituek justifikatzeko dokumentazioa, Hezkuntza Sailaren datu-basean sartzeko eta lekualdatze-lehiaketan merezimendu gisa zenbatzeko.

4.- Merezimenduen baremoaren aukerak (merezimenduei buruzko dokumentazioa errazago entregatzeko)

ON-LINE eskaeran, 2010/2011ko, 2011/2012ko, 2012/2013ko, 2013/2014, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017, 2017/2018, 2018/2019, 2019/2020, 2020/2021, 2021/2022, 2022/2023 edo 2023/2024ko lekualdatze lehiaketetan parte hartzen duten funtzionarioek “lehiakide guztiak betetzeko” atalean hurrengo aukera hauetako bat adierazi beharko du:

- A)** Parte hartu zuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak) puntuazioari eustea.
- B)** Merezimendu berriak gehitzea.
- C)** Barematze berria.

Aukera hauek (puntuazioari eustea, merezimendu berriak gehitzea, barematze berria) I. eranskinetako ataletan ofizioz konputatzen ez diren merezimenduei (hau da, egiaztagiria aurkeztu behar diren merezimenduei) dagokie, bakar-bakarrik. Ofizioz konputatzen diren merezimenduak automatikoki eguneratuko dira, erabiltzen den aukera edozein izanda ere

2010/2011ko, 2011/2012ko 2012/2013ko, 2013/2014ko, 2014/2015ko, 2015/2016ko, 2016/2017ko 2017/2018ko, 2018/2019ko, 2019/2020ko, 2020/2021ko, 2021/2022ko, 2022/2023ko edo 2023/2024ko lekualdatze lehiaketetan parte hartu ez zutenek ezin izango dute ondorengo aukerak hautatzea: “azken lehiaketaren puntuazioari eustea” edo “Merezimendu berriak gehitzea”.

OHARRA: Zein aukera erabiliko duzun erabakitzeko, aipatutako lekualdatze-lehiaketetan lortutako puntuazioak kontsultatu ahal izango dituzu. Kontsulta hori egin ahalko da <https://hezigunea.euskadi.eus>, helbidean, lekualdatze-lehiaketan sartu eta “berriak” atalean begiratu “Aurreko lekualdatze-lehiaketan puntuazioen kontsulta”.

A) Parte hartu zuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak) **“puntuazioarekin jarraitzea” aukera hautatzeak** honako hau esan nahi du:

- Parte hartu zuen azken lehiaketan (adierazitako puntuazioen artean) I. eranskinetako ataletan (3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.2-sariak, 6.3 eta 6.6.1) izan zituen puntuazioei eusten zaie lehiaketa berri honetan, eta EZ dago justifikazio-agiri berririk atal horietan aurkezteko.
- 1, 2, 3.1.1, 3.1.2, 3.2.1, 3.2.2, 3.2.3, 3.3, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 5.5, 6.2.-proiektuak eta 6.4 ataletako merezimenduak, parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketako (* 1) eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren burututakoak, ofizioz eguneratzen direla, Langileen Erregistroan dagoen informazioaren arabera, eta EZ dagoela atal horietan aurkeztu beharreko justifikazio-dokumentazio berririk.
- 5.3, 5.4, 6.4, 6.5 eta 6.6.2 ataletako merezimenduak ofizioz eguneratzen direla, Hezkuntza Sailean dagoen informazioaren arabera, eta EZ dagoela atal

horietan beste autonomia-erkidego batzuei buruzko justifikazio-dokumentaziorik.

B) Parte hartu zenuen azken lehiaketaren ondorengo “beste merezimendu batzuk gehitzea” aukera, honako hau esan nahi du:

- Ados dagoela parte hartu zuen azken lehiaketan (aipatutako horien artean) I. eranskineko ataletan lortutako puntuazioarekin, non egiaztagiriak aurkeztu behar izan ziren (3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.2-sariak, 6.3 eta 6.6.1). Eta puntuazio horri barematutakoen ondorengo beste merezimendu batzuk gehitu nahi dizkiola, eta horiei buruzko egiaztagiriak aurkeztu behar dituela. (* 1)

Kasu horretan, parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketako eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako eta amaitutako merezimenduak aurkeztu beharko ditu (kasuaren arabera, 2010eko abenduaren 14tik, 2012ko urtarrilaren 27tik, 2012ko azaroaren 22tik, 2013ko azaroaren 20tik, 2014ko azaroaren 25etik, 2015eko abenduaren 22tik, 2016ko azaroaren 28tik, 2017ko abenduaren 13tik, 2018ko azaroaren 27tik, 2019ko abenduaren 19tik, 2020ko azaroaren 26tik, 2021eko abenduaren 1etik, 2022ko azaroaren 7tik edo 2023ko abenduaren 21etik) lehiaketa honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu arte. Adierazitako ataletako edo azpiataletako batean gehieneko puntuazioa lortu baduzu, ez duzu merezimendu berririk gehitu beharko dagokion atalean edo azpiatalean.

- 1, 2, 3.1.1, 3.1.2, 3.2.1, 3.2.2, 3.2.3, 3.3, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 5.5, 6.2.-proiektuak eta 6.4 ataletako merezimenduak ofizioz eguneratzen direla, Langileen Erregistroko informazioaren arabera, baina beste dokumentazio bat dagoela atal horietan aurkezteko (erregistro horretan jasota ez dagoelako), parte hartu zuen azken lehiaketako eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren hobetutako merezimenduei buruz (* 1).

- 5.3, 5.4, 6.4, 6.5 eta 6.6.2 ataletako merezimenduak ofizioz eguneratzen direla, Hezkuntza Sailean dagoen informazioaren arabera eta horrez gain, atal horietan beste autonomia-erkidego batzuei buruzko justifikazio-dokumentazioa daukala aurkezteko.

C).- “Barematze berria” aukera

Aukera hau honako kasuren batean dagoenarentzat da:

-Parte hartu zuten azken lehiaketaren deialdia baino lehenagoko I. eranskineko 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.2-sariak, 6.3 eta 6.6.1 ataletako merezimenduak barematzea nahi dutenak (* 1) edo atal horietan egindako baremazioarekin ados ez daudenak. Kasu horretan, berriz aurkeztu beharko dira ofizioz aurkeztu ez diren merezimenduen egiaztagiriak.

-2010/2011ko, edo ondorengo lekualdatze lehiaketetako deialdietan parte hartu ez dutenentzat.

-2024ko irailaren 1ean karrerako funtzionario izendatuta egon eta oraindik destinatorik lortu ez dutenentzat.

-Estatuko lekualdatze-lehiaketa batean lehen aldiz Erkidego honetan destinoa lortu zuten eta une horretatik lehen aldiz parte hartzen duten beste autonomia-erkidego batzuetako karrerako funtzionarioak.

-Praktiketako funtzionario gisa parte hartu zutenetik behin betiko destinoa lortu zuten eta harrezkero lekualdatze-lehiaketa batean parte hartu ez duten karrerako funtzionarioak.

Atal guztiei dagokien ziurtagiriak, deialdian aurreikusten den arabera, aurkeztu beharko dituzte baloratuak izan daitezen.

5°.- Merezimenduen baremoa aldatzea: lekualdatze-lehiaketei aplikatu beharreko araudia aldatu da, merezimenduen baremoari dagokionez; horren ondorioz, zenbait ataletan puntuazioa handitu egin da, puntuazio-mugak handitu egin dira, atalen arteko bateraezintasunak desagertu egin dira...). Hori dela eta, adierazitako aldaketak sartu diren baremoaren I. eranskina arretaz irakurtzea gomendatzen da. Aldaketa horien ondorioz, baliteke aurreko urteetako egiaztagiria aurkeztu behar izatea (ofizioz zenbatzen ez diren merezimenduenak) eta, beraz, baremo-aukera gisa "Baremazio berria" adierazi behar izatea. Jarraian, egoera hori zer ataletan gerta daitekeen adierazten da:

- **3.1.3:** ikerkuntza-nahikotasunaren aitorten edo ziurtagiri/diploma batetik bat baino gehiago zenbatu ahal izatera igaro da. Barematu gabeko aurreko urte bat baino gehiago izanez gero, baremazio berria aukeratu behar du, eta ofizioz ez doazen merezimenduak justifikatzeko dokumentazio guztia aurkeztu (atal honetakoa barne).

- **4.3:** 5 puntuko muga izatetik 10 puntukoa izatera igaro da, eta urteko puntu 1 izatetik urte bakoitzeko 1,5 puntu izatera igaro da. Muga berrira iristeko barematu ez diren aurreko urteetako irakaskuntza-funtzioak zenbatu behar badira, «Baremazio berria» aukera hautatu behar da, eta ofizioz ez doazen merezimenduak justifikatzeko dokumentazio guztia berriz aurkeztu (atal honetakoa barne).

- **5.1:** 5. atalak 10 puntuko muga izatetik 15 puntukoa izatera igaro da, eta 5.1 atalak 6 puntuko muga izatetik 9 puntuko muga izatera igaro da. Muga berrira iristeko, ofizioz agertzen ez diren eta barematu ez diren aurreko urteetako ikastaroak zenbatu behar badira, baremazio berria aukera hautatu behar da, eta ofizioz ez doazen merezimenduak justifikatzeko dokumentazio guztia berriz aurkeztu (atal honetakoa barne).

- **5.2:** 5. atalak 10 puntuko muga izatetik 15 puntuko muga izatera igaro da. Muga berrira iristeko, ofizioz agertzen ez diren eta barematu ez diren aurreko urteetako ikastaroak zenbatu behar badira, baremazio berria aukera hautatu behar da, eta ofizioz ez doazen merezimenduak justifikatzeko dokumentazio guztia berriz aurkeztu (atal honetakoa barne).

- **6.3:** atal honetan barematu beharreko merezimendu berriak gehitzen dira. Barematzen diren merezimendu berriak edukiz gero, aurreko urteetakoak, Baremazio berria aukera hautatu behar du, eta berriro aurkeztu behar ditu ofizioz aurkezten ez diren merezimenduak justifikatzen dituzten agiri guztiak (atal honetakoak barne).

- **6.6.1:** 4.1,4.2 eta 4.3 apartatuen eta 6.4 eta 6.6 apartatuen arteko bateraezintasuna desagertu da. Barematu gabeko aurreko urteetako merezimenduak izanez gero, baremazio berria aukeratu behar du, eta ofizioz ez doazen merezimenduak justifikatzeko dokumentazio guztia aurkeztu (atal honetakoa barne).

Bestalde, baremoaren aukerari ez dio eragiten, baina frogagiriak aurkeztu behar dira, honako kasu honetan:

- **3.2.1:** 5 puntu lortzeko, gradu-titulua osorik egina izan beharko da; gradu-titulua beste unibertsitate-titulu batzuen bidez lortu bada, 2,5 puntu emango dira. Ofizioz, atal hau 2,5 punturekin zenbatuko da. 5 puntu lortzeko, gradu-ikasketa guztiak egin direla adierazten duen ziurtagiri akademikoa aurkeztu behar da. Eta aurrerantzean ere Mantendu edo gehitu merezimenduak aukera daiteke, baremoko gainerako atalak kontuan hartuta.



Azkenik, adierazten da ofizioz eguneratuko dela honako atal hauei eragiten dien puntuazio-gehikuntza: **1, 3.1.1, 3.3.f, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1 eta 5.2.**

GARRANTZITSUA

Kontuan izan behar da bai merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa bai online eskabidea 2024ko azaroaren 5etik 26ra bitartean (biak barne) aurkeztu behar dela.

Aplikaziora sartzeko erabiltzailearekin edo on-line parte hartzeko eskaera grabatzeko prozesuarekin gerta litezkeen intzidentzia teknikoak garaiz konpondu ahal izateko, funtsezkoa da erabiltzailea eta pasa-hitza berreskuratzea (gogoratzen ez badira) gomendatzen da azken unera arte ez uztea, ezta eskaeraren grabazioa ere.

Espezialitateak eskuratzea (bakarrik Maisu-Maistrentzat)

Beste espezialitate batzuk aitortzeko eta horren ondorioz, beste espezialitate bateko eskaerak egin ahal izateko, eskaera bat aurkeztu beharko da EIZUko Enplegatuaeren Atariaren bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari zuzenduta. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak dagokion ebazpena jaulgiko du, eskaera onartuz edo ezetsiz. Espezialitatea edo espezialitateak aitortzeko eskaera lekualdatze-lehiaketa honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin behar da.